

Bestalde, fakturazio-mailak, 2016eta 2018. urteen artean erregistratutako hazkundera baino erritmo handixeagoan, gora egiten jarraitzen du (+%2,7), eta 2019an 8.700 milioi euroko negozio-maila izango luke; salmenta-bolumen hori 2010eko ekitaldiko salmenta-maila (8.500 milioi euro) baino handiagoa izango litzateke, baina ez litzateke iritsiko 2008ko finantza-krisiaren aurreko urteetako 9.500 milioi euro inguruko mailetara.



⁷ Iturria: biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta BJA Eustat


Fakturazioaren bilakaera positiboa jarduera-sektore guztietara (+%6,8 eraikuntza, +%3,3 industria eta +%1,9 zerbitzuak), lurralde historikoetara (+%4,9 Araba, +%3,6 Gipuzkoa eta +%0,6 Bizkaia) eta hiru forma juridikoetara (+%5,8 LSM, +%2,9 LSA eta +%2,6 Kooperatibak) hedatzen da.

Enpleguari dagokionez, **gizarte-ekonomiaren industria, fakturazioa %3,3 handitu arren, 2018tik 2019ra bitartean plantillak doituko lituzkeen sektore bakarra da (-%1,6); galera hori, hain zuzen, euskal industria osoan gertatutakoarekin bat etorriko litzateke (-%1,5).**

Zerbitzuen okupazio-maila %2 inguruko urte arteko salmenten hazkundean mantentzen da; eta eraikuntzak enplegu garbia gehitzen jarraituko luke, %4,3ko urte arteko erritmo nabarmenean, jarduera handitzearen eskutik (+%6,8).

Lurraldeka, Araban izan da enplegu-galerarik handiena (-%3,3), eta Bizkaiak eta Gipuzkoak 2018ko okupazio-mailari eutsiko diote.

Azkenik, 2016-2018 aldian plantillak %6,4 handitu ondoren, LSAek enpleguaren %5,3 galduko lukete 2018-2019 aldian. Kooperatibak eta LSMak 2018koen antzeko enplegu-mailak izango lituzke.



III. KANPOKO GIZARTE-PERTZEPZIOAREN, ERAKUNDE-LANAREN ETA GIZARTE-EKONOMIA KUDEATZEKO ORGANOETAKO BARNE-PARTE-HARTZEAREN BALORAZIOA (GEFK)

Gizarte-ekonomiako lau enpresatik batek baino ez du balorazio positiboa jasotzen euskal gizartearen aldetik, jokatzeko duen rolari eta Euskadiren garapen sozioekonomikoari egiten dion ekarpenari dagokionez.

Horrela, enpresen %25,2k gizarte-ekonomiak betetzen duen rola berretsiko luke euskal gizarteak, eta enpresen %23,4k baino ez luke balioetsiko herritar guztiek euskal ekonomiari egiten dioten ekarpena.

Nolanahi ere, adierazi behar da enpresa-pertzepzio subjektibo hori nabarmenagoa eta positiboagoa dela 100 enplegutik gorako plantilla duten enpresa handien artean; hala, gizarte-ekonomiako enpresa ertain eta handien artean, enpresen erdiek balioesten dute gizarte-aintzatespen hori; proportzio hori %61era igotzen da 201 enplegutik 500era.

ENPRESA-PERTZEPZIOA GIZARTE-EKONOMIAK SARE SOZIOEKONOMIKOARI EGITEN DION EKARPENARI ETA ROL DIFERENTZIALARI BURUZ, ENPRESA-TAMAINAREN ARABERA 2018
(enpresen %)

	GUZTIRA	5 enplegu arte	6 tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 baino gehiago
Rol diferentzial	25,2	23,1	24,2	33,3	25,6	43,9	66,3	34,6
Ekarpen nahikoa	23,4	21,0	23,1	27,7	29,7	49,9	60,7	52,4

Enpresen ia erdiek gizarte-ekonomia ikusaraztera bideratutako euskal erakunde-lanari buruzko iritzirik ematen ez badute ere, enpresen herenek modu egokian edo/eta positiboan balioesten dituzte ahalegin instituzional horiek.


Aintzatespen instituzional horrek, euskal herritarren pertzepzioarekin eta balioespenarekin gertatzen denaren ildotik, balorazio hobea merezi du enpresa handien artean; hala, 200 lanpostu baino gehiago dituzten enpresen erdiek baino gehiagok aitortzen dute euskal erakundeek egindako lana.

Aitzitik,

- **100-500 enpleguko enpresen artean ere bada kolektibo esanguratsu bat, %40 ingurukoa, zentzu horretan kritikoagoa izango litzatekeena, eta erakunde-lan hori ez dela nahikoa esaten duena.**
- Enpresa txikien eta mikro-enpresen artean, pertzepzio eta posizionamendu hori askoz diluituagoa eta zalantzarriagoa da.

GIZARTE-EKONOMIA IKUSARAZTERA BIDERATUTAKO EGUNGO ERAKUNDE-LANA BALORATZEA
EDO AINTZAT HARTZEA.

GLOBALA ETA ENPRESA-TAMAINAREN ARABERAKOA 2018 (enpresen%)




Parte-hartze soziala, euskal gizarte ekonomiaaren ezaugarri bereizgarria da, erakundeen artean osasun ona duen elementua da.

EAEko gizarte-ekonomiako enpresen %80k balioespen positiboa egiten dio bazkideek zuzendaritza-organoetan eta batzarretan gaur egun duten partaidetza-mailari.

Gainera, %40 inguruk parte-hartzea guztiz egokitzen du, eta %3,4k soilik adieraziko lituzke parte-hartze sozial gutxiko antolaketa-errealitateak.

BAZKIDEEK ZUZENDARITZA-ORGANOETAN ETA BATZARREAN DUTEN PARTE-HARTZE
MAILAREN BALORAZIOA 2018 (enpresen %)



IV. GENERO-BERDINTASUNA ETA KONTZILIAZIO-NEURRIAK GIZARTE-EKONOMIAN (GEFK)

Emakumeen enpleguak gizarte-ekonomiako zerbitzuen sektorean duen pisua adierazgarriagoa da ekonomia osoan baino; ildo horretan, gizarte-ekonomiaren gainordezkaritza industrialaren efektua "neutralizatuz", emakumeen enpleguak okupazioaren %52 hartuko luke (EAEko ekonomiaren %47,3ren aldean). Gainera, gizarte-ekonomiak aurrera egin du emakumeen ordezkartzan kontseilu gidarietan eta berdintasun-planen eta kontziliazio-neurrien ezarpenen.

Hala ere, oraindik bidea dago egiteko.

EAEko gizarte-ekonomiaren industria-izaera nabarmenak eta sektore horri lotutako enplegu maskulinoaren pisu historiko handiagoak baldintzatu eta oztopatu egiten dute, oro har, emakumeen enpleguak euskal gizarte-ekonomian duen pisua, euskal ekonomia "tertziarizatuaren" aldean.

Horrenbestez, EAEko biztanle landunen artean emakumeen enplegua %47,3 da, baina gizarte-ekonomian ordezkartza hori 4 p.p. baino pixka bat beherago dago 2018an (%43,1).

Hala ere, genero-ikuspegi horretatik, euskal gizarte-ekonomiari bereziki mesede egiten dioten honako errealitate hauek nabarmendu behar dira:

- Gizarte-ekonomiako hirugarren sektorearen feminizazioa askoz ere nabarmenagoa da; hala, zerbitzuen sektoreko enpleguaren %63,2 emakumeak dira, eta EAEko enpresa-sareko hirugarren sektoreko emakumeen %58,5a.
- Industriaren kasuan, gizonen enplegua nagusi bada ere (%78,2), emakumeen enplegua euskal industria osoarena baino pixka bat handiagoa izatea merezi du, 0,8 puntu.
- Kooperatiben artean, industria-osagai handiagoa duten arren, emakumeen enpleguaren pisua (%45,7) gehiago egokitzen zaio EAEko ekonomia osoaren sexuen araberako banaketari.

JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERAKO BANAKETA 2018KO GIZARTE-EKONOMIAN, SEXUAREN ARABERA (% bertikalak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonak	56,9	79,5	78,2	89,7	36,8
Emakumeak	43,1	20,5	21,8	10,2	63,2
	52,0*				

* Emakumeen pisua euskal enpleguaren sektore-banaketaaren arabera plantilla osoarekiko

JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERAKO BANAKETA, SEXUAREN ARABERA, 2018KO EAEKO EKONOMIAN (% bertikalak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	zerbitzuak
Gizonak	52,7	77,1	79,0	89,7	41,4
Emakumeak	47,3	22,9	21,0	10,3	58,6

Iturria: elaborazioa Eustatetik abiatuta. Biztanleria-inkesta 2018ko jarduerari dagokionez

ENPLEGUAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA, 2018 (% bertikalak)

	GUZTIRA	Kooperatibak	LSA	LSM
Gizonak	56,9	54,3	81,7	72,6
Emakumeak	43,1	45,7	18,3	27,4

Gauzak horrela, eta euskal ekonomia sozialaren izaera industrial handiena zuzendu edo orekatuko lukeen doikuntza-faktore bat txertatuz gero, kooperatiben eta lan-sozietateen artean emakumeen euskal enpleguaren ordezkartza eraginkorra are nabarmenagoa izango litzateke eta enpresetan sexuen arabera partaidetza orekatuko luke (%52 eta EAEko biztanleria landunaren %47,3, hurrenez hurren).

Bestalde, emakumeen partaidetzak pixkanaka egiten du aurrera EAEko gizarte-ekonomian; hala, 2018an, oreka lortu ez arren (gutxienez %40tik %60ra bitarteko ordezkartza), emakumeak Kontseilu Errektoreetako postuen herena dira. Balioa eman dakioken ratioa,

- Bilakaeraren arabera, joera progresibo positiboa erakusten du: (2010: %24,5, 2014: %27,6, 2016: %29,7, 2018: %33,6).
- Lehen aldiz lortu du oreka zerbitzuen sektorean (%42,5 emakumeak eta %57,5 gizonak), eta paritarioa da Mondragon Korporazioaren banaketa- eta finantza-bitartekaritzako enpresa handian.
- Bat dator Eusko Jaurlaritzari atxikitako enpresa eta erakunde publikoetako zuzendaritza- edo gerentzia-karguei lotutako emakumeen batez besteko partaidetzarekin (%34,5)⁸.

Hala ere, industrian, 2016tik apur bat gora egin badu ere (%20,6), Kontseilu Errektoreetan emakumeen egungo ordezkartza %22 baino ez da.

⁸ Iturria: 2019ko Emakunderen Zifren Txostena

KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN
ARABERA, 2018 (% bertikalak)

	GUZTIRA kontseilua	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonak	66,4	88,0	78,2	89,3	57,5
Emakumeak	33,6	12,0	21,8	10,8	42,5

Enpresetan berdintasun-planak aplikatzeari dagokionez, eta Gizarte Ekonomiaren 2016ko aurreko Estatistikan adierazitakoaren ildotik, enpresen %10ak baino ez du gaur egun Berdintasunerako eta familia eta lana bateragarri egiteko plana.

Errealitate horrek oztopo egiten du berdintasun-planak gutxi ezarri direlako mikroenpresen artean (%5,1ak soilik, esparru horretan plan bat duelarik) eta 6-15 enplegu enpresa txikien artean (%10ak).

Nolanahi ere, 201 enplegu baino gehiago dituzten enpresen artean, proportzioa %71-81ekoa da, baina 250 lanpostu baino gehiago dituzten enpresek, indarrean dagoen lege-esparruaren arabera, berdintasun-plan bat izan beharko lukete beren erakundean; gainera, 2019tik aurrera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresek plan hori txertatu beharko dute, beren dimentsioaren arabera⁹, 2022ra arte ezarritako gehieneko epean.

GAUR EGUN BERDINTASUN PLANA DUTEN ENPRESAK. 2018 (%)

	GUZTIRA	5 enplegu arte	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500enplegu baino gehiago
Berdintasunerako eta familia eta lana bateragarri egiteko plana	9,7	5,1	10,0	20,2	24,0	31,1	70,9	80,8

Azkenik, enpresen artean aplikatutako kontziliazio-neurrien aplikazioari dagokionez, ordutegi-malgutasuna nabarmenduko litzateke praktika hedatuago gisa (enpresen %44, industrian %49,4, eta %70 - %80 arte 100 enplegutik gorako enpresen artean); ondoren, lanaldi-murrizketa dator (%27, oro har; %32, industrian; %30, zerbitzuen sektorean; eta %85 baino gehiago, 100 enplegutik gorako enpresen artean).

⁹ Eusko Jaurlaritzak onartutako ondoz ondoko berdintasun-planak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea izan dira enpresetan berdintasuna sustatzeko neurriak bultzatzea eta garatzea ahalbidetu eta babestu duen esparrua.

Ondoren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ildo beretik jo du, eta 250 langiletik gorako enpresa guztiek berdintasun-plan bat izan behar dutela ezarri du.

Berrikiago, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak (enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko premia neurriei buruzkoa) 3/2007 Lege Organikoa aldatzen du, eta 50 enplegutik gorako enpresei berdintasun-planak izateko eskatzen die. Horretarako, hainbat epe ezartzen dira:

- 150 eta 250 langile bitarteko enpresek urtebeteko epea izango dute (2020ko martxoa).
- 100 eta 150 langile bitarteko enpresek bi urteko epea izango dute (2021eko martxoa).
- 50-100 langileko enpresek hiru urteko epea izango dute (2022ko martxoa).


Hala ere, garrantzi handiagoko neurriak, telelana kasu, enpresen %14k eta industria-enpresen %12k baino ez dituzte egiten (zerbitzuen sektorean %17 inguru), eta 500 enplegu baino gehiago dituzten enpresa handien %9ak soilik. 2020. urtean, COVID-19ren eraginaren ondoren, errealitate hori nabarmen alda daiteke eta "egiturazko aldaketa" ekar dezake zentzu horretan.

Hautzaindegi-zerbitzua oso gutxi hedatuta dago gaur egun (enpresen %3 baino ez).

Nolanahi ere, kontziliazio-neurri horiek 2018an 2016an baino ezarpen handiagoa lortu dute, eta horietako bakoitza -Hautzaindegi-zerbitzuak izan ezik- 2 eta 4 puntu artean gehitu da 2018ko edizio honetan.

AZKEN BI URTEETAN EZARRITAKO KONTZILIAZIO-NEURRIAK, ENPRESA-DIMENTSIOAREN ARABERA, 2018

	GUZTIRA	5 enplegu arte	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 enplegu baino gehiago
Ordutegi malgua	43,8	38,4	44,2	60,7	64,1	73,1	86,8	79,2
Lanaldi murriztua	27,0	17,5	28,7	51,9	70,0	84,7	87,2	93,4
Telelana	13,7	12,6	13,2	19,4	14,9	26,3	19,6	8,9
Hautzaindegi zerbitzua	2,7	1,0	1,6	3,8	20,1	28,1	10,3	8,9



V. SOLDATA-BANAKETA ETA LAN-GIROA

Euskal gizarte-ekonomia osatzen duten maila eta profil profesionalen arteko soldata-tartea, neurri handi batean, gutxieneko soldata-maila halako 1etik 3ra bitartekoa da.

Nolanahi ere, soldata-tarte horrek, enpresa handien kasuan, gutxieneko soldata-tartea sei aldiz biderkatuko lukeen gehieneko tasara igotzen du.

Gizarte-ekonomiako enpresen %82 inguruk 1 eta 1 - 2 - 3 arteko soldata-tartea ezartzen dute barnean, gutxieneko soldata-tartearen gainean.

Nolanahi ere, gutxieneko eta gehieneko tartearen arteko aldea 4-5-6 aldiz handiagoa da 201 eta 500 enplegu arteko enpresen %35 ingururentzat eta 500 enplegutik gorako enpresen %63 baino apur bat gehiagorentzat.

Era berean, soldata-biderkatzaileak 6 baino gehiago dituzten enpresak urriak dira EAEko gizarte-ekonomian.


ENPRESAKO SOLDATA-ALDEA EDO -BANDA (GUTXIENEO SOLDATA-TARTEAREN ETA GEHIENEO SOLDATA-TARTEAREN ARTEKO ALDEA). ENPRESA-DIMENTSIOAREN ARABERA 2018 (%)

	GUZTIRA	5 enplegu arte	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500enplegu baino gehiago
1 eta 1-2-3 arteko aldea	81,7	83,0	83,7	82,7	68,1	69,6	60,5	24,0
1-4-5-6 aldiko aldea	6,3	3,4	6,4	11,5	16,5	28,2	34,8	63,4
1 eta 7-8-9 arteko aldea	1,4	1,3	1,2	0,6	3,7	2,3	4,7	6,3
1 eta 10 aldiz arteko aldea	0,2	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Zehaztu gabea	10,4	12,0	8,6	5,3	11,7	0,0	0,0	6,3

Gaur egun, enpresen %31 inguruk ebaluatzen dute langileen asebetetze-maila; barne-ebaluazio horrek lan-giro ona dakar kasuen %96an.


50 enplegu baino gehiago dituzten enpresen artean, lan-giroari lotutako barne-ebaluazio mota hori praktika naturalagoa da, eta 51 eta 100 lanpostu bitarteko enpresen %60a iristen da; 101 eta 500 lanpostu bitarteko enpresen artean, %75-80ra; eta 500 enplegu baino gehiago dituzten erakundeen artean, %81era iristen da.

LANGILEEN GOGOBEKETASUNA BARNEAN NEURTZEN DUTEN GIZARTE-EKONOMIAKO
ENPRESEN EHUNEKOA, ENPRESA-DIMENTSIOAREN ARABERA 2018 (%)



Gainera, antolamendu-neurketa horien bidez lortutako emaitzak aldekoak izan ohi dira; hala, enpresen %96k lan-giro ona hautematen dute, eta %3ak baino gutxiagok, berriz, langileen gogobetetasunik eza adierazten dute.

GOGOBEKETZE-MAILA, AZKEN NEURKETAREN/EBALUAZIOAREN EMAITZA OROKORRA 2018 (%)




VI. TALENTUAREN KUDEAKETA ENPRESAN (GEFK)

Elkarteen ekonomiako enpresetan talentua lortzea edo/eta atxikitzea arazo eta erronka bat da enpresen %23arentzat; kezka hori %65era hedatzen da ehunetik gora langile dituzten erakundeetan, eta, gainera, areagotu egiten da epe ertainean.

Talentuaren kudeaketa elementu estrategikoa da, eta garrantzi handiagoa du industrian. Sektore horretan, gaur egun, kezka hori enpresen heren bati eta industria-jardueraren adar jakin batzuen (metalurgia, makineriaren eta ekipo mekanikoen eraikuntza eta material eta ekipo elektriko, elektroniko eta optikoen industria) %40 baino gehiagori eragiten die.


Zerbitzuetan eta industrian, talentuaren kudeaketa arazo bat da enpresen %20rentzat

TALENTUAREN KUDEAKETA ARAZOTZAT JOTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA 2018 (%)



Talentua erakartzea eta atxikitzea faktore kritikoa ez bada ere mikroenpresen artean - 5 lanpostu baino gutxiago dituzten enpresen %13,4ak soilik jasoko luke arazo bat zentzu horretan -, kezka hori 16 eta 100 lanpostu bitarteko enpresen erdietara iristen da gaur egun, eta ehunetik gora langile dituzten enpresen artean %53tik %65era igotzen da.

TALENTUAREN KUDEAKETA ARAZOTZAT JOTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA, ENPRESA-DIMENTSIOAREN ARABERA, 2018 (%)





Etorkizunean, enpresen %23 inguruk – Industrian %34k baino zertxobait gehiagok eta 16 langile baino gehiago dituzten enpresen erdiek baino gehiagok - adierazi du, gainera, talentua lortzea nahiko arazo edo oso arazo garrantzitsua izango dela epe ertainean. Bestalde, talentu hori hurrengo urteetan atxikitzea faktore kritikoa da enpresen %15entzat soilik (%21 industria-enpresen artean).

VII. ENPRESAK KUDEATZEKO TRESNAK (GEFK)

Azken urteetan ezarritako egonkortasunaren ildotik, enpresa-kudeaketarako "ohiko" tresnak, planaren izaeraren arabera, enpresen %22tik %36ra bitarteko kolektibo batek txertatzen ditu (%22 Plan Estrategikoak eta %36 Prestakuntza Planak).

Eremu "berritzaileagoei" lotutako planen ezarpena askoz ere mugatuagoa da: berdintasun Planak (enpresen %9,7), Enpresaren Erantzukizun Soziala (enpresen %9,6) eta Kode etikoak (%14,2).

Prestakuntza-planak dira oraindik ere enpresen ezarpen-tasa handiena duten enpresa-plangintzako tresnak (%36); gainera, 16 lanpostu baino gehiago dituzten kooperatiben eta lan-sozietateen artean oso orokorra da (%71 -%90), eta 201 lanpostu baino gehiago dituzten enpresa guztietara hedatzen da.

Bestalde, enpresen %22k Plan Estrategikoak formalizatu dituzte; errealitate horren arabera, enpresa-dimentsioaren arabera, %12 baino ez da ezarri mikroenpresen artean, eta %80-93 50 langile baino gehiago dituzten enpresen artean.

Gainerako dokumentuen ezarpen-tasak, enpresa-dimentsioa eskalatzen duen heinean ezarpen handiagoko logika batean, honela kuantifikatzen dira: %31,1 kudeaketa-planetan, %28,7 barne-araubideko araudietan eta %25,6 lanpostuen Balorazio-Eskuliburuetan.

ENPRESA TAMAINAREN ARABERA KUDEAKETA TRESNAK 2018 (Erreminta hauek dokumentu idatzietan dituzten enpresen %)

	GUZTIRA	5 enplegu arte	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 enplegu baino gehiago
1.- Prestakuntza Plana	35,6	21,3	47,7	70,9	85,0	89,7	100,0	100,0
2.- Kudeaketa Plana	31,1	21,2	27,8	63,8	86,1	95,1	87,9	100,0
3.- Barne arautegia	28,7	17,0	32,3	60,8	76,9	94,6	95,0	93,4
4.- Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	25,6	13,7	32,3	58,2	71,6	70,9	86,8	93,4
5.- Plan estrategikoa	22,2	11,9	20,4	52,0	79,1	89,3	87,9	93,4
6.- Etika eta Jokabide Kodea edo antzeko dokumenturik	14,2	7,7	16,3	27,4	39,8	57,6	66,2	66,3
7.- Berdintasun eta Lana eta familia bateragarri egiteko Plana	9,7	5,1	10,0	20,2	24,0	31,1	70,9	80,8
8.- GEK-ari buruzko txosten edo gizarte balantzea	9,6	5,9	7,7	21,2	19,6	28,8	66,2	72,2


Berdintasun Planen (%9,7), Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Txostenen (%9,6) eta Jokabide Kodeen (%14,2) kasuan (plan berrien multzoa) azterketa aurreko 2016ko Gizarte Ekonomiaren Estatistikan txertatzen zen, eta egungo ezarpen-maila mugatuagoa eta oso txikia da mikroenpresen artean (berdintasun-planen kasuan, %5 eta %7,7 kode etiko eta jarrera kodeetan).

Nolanahi ere, hiru plan horien ezarpen-maila 200 enplegu baino gehiago dituzten erakundeen %66ren gainera dago, eta berdintasun-planen kasuan ezarpen-maila maximoa %70etik %80ra bitartekoa da (enpresa horiek, legeak hala aginduta, plan hori izan beharko lukete, lehen adierazi bezala).

Ingurumen-inpaktua murrizteko edo minimizatzeko ezarritako ekintzak 50 lanpostu baino gehiago dituzten enpresen %75 baino gehiago dira.

Hala ere, 15 lanpostu baino gutxiago dituzten enpresen artean, enpresen erdiek baino gutxiagok (eta %28k soilik mikroenpresetan) ingurumen-inpaktua arintzeko ekintzak egiten dituzte.


INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERAREN BAT EGITEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA, ENPLEGU-GERUZAREN ARABERA 2018 (geruza bakoitzeko enpresa guztien%)



Prestakuntza-ekintzak ere orokorrak dira 50 lanpostu baino gehiago dituzten enpresen artean (%70 - %80); neurri handi batean, sozietate-kolektiboari zuzendutako prestakuntza da.

Aitzitik, azken bi urteetan prestakuntza-ekintzei heldu dieten enpresa-egitura txikien proportzioa %12,5koa baino ez da, eta %17,5koa 6-15 enpleguko plantillak dituzten enpresen artean.

KOOPERATIBEN ETA LAN-SOZIJETATEEN PRESTAKUNTZA 2018 (azken bi urteetan arlo horretan jarduerak egiten dituzten enpresen%, enplegu-geruzaren arabera)



VIII. ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA (GEFK)

Enpresen arteko lankidetza apur bat jaitsi da (enpresen %23,7k lankidetza-harremanak dituzte), baina oraindik ere behar estrategiko bat da, kooperatiben ehunak (% 63,5) eta zerbitzuen sektoreak (% 63) eta industria-sektoreak (% 56,3) adierazten dutena.

2018. urtean, gizarte-ekonomiako enpresen %24 inguruk ezartzen ditu enpresen arteko lankidetza-harremanak (2016an, %27,7k; eta 2014an, %26,1ek); ratio hori %27ra hurbiltzen da kooperatiben kasuan.

Nolanahi ere, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen artean, proportzio hori nabarmen igotzen da, %70eko eta %80ko ratioetara.


Harreman horien izaera, neurri handi batean, lankidetza puntualekin lotzen da (%68), eta etxeko oso eremu geografikon kokatzen dira.

Lankidetzarako formula, neurri handi batean, lankidetza puntualen bidez gauzatzen da (% 68 eta %63, berriz, 2016an), eta aliantza estrategikoak %41era jaisten dira (%45, 2016an). Bigarren mailako kooperatibak, 2016. urtearekin bat etorritik, enpresen %16rekin lotuko lirateke; azkenik, akzio-trukea eta Joint Ventures formalizazioa ia ez dira egiten (enpresen %3 baino ez).

Geografikoki, enpresen arteko harremanak ezartzen dituzten enpresen %94,4k beste euskal enpresa batzuekin ezartzen ditu, eta askoz ere proportzio mugatuagoak ditu estatuarekin (%20,7), Europarekin (%11,3) eta munduko gainerako lurraldeekin (%5 baino ez).

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA-HARREMANEN IZAERA

2018 (enpresa ehunekoa kopuru osoarekiko)




Etorkizunean, harreman eta lankidetzaren mota horiek garrantzi handiagoa izango lukete.


Illo horretan,

- Enpresen %94k uste du horrelako harremanei eusteko beharra elementu estrategikoa eta/edo beharrezkoa dela;
- Proportzio hori are nabarmenagoa da 2016an baino; izan ere, %58 inguruk oso garrantzitsutzat eta estrategikotzat jotzen ditu harreman horiek gaur egun, eta 2016an, berriz, %50ek.
- Enpresen %43 inguruk, gainera, lankidetzaren horien bilakaeran gorantzko joera erakusten du.

MOTA HONETAKO ELKARKIDETZA-HARREMANAK MANTENTZEAREN BEHARRAREN/
GARRANTZIAREN HAUTEMATEA 2018(%)



ZURE ENPRESAKO LANKIDETZA-HARREMANEN BILAKAERAN ESPERO DEN JOERA (%)



IX. BERRIKUNTZAREN JARDUERAK ETA ERAGINA (GEFK)


2018an, Osloko Eskuliburua argitaratu ondoren, berrikuntzaren definizioa aldatu zen enpresan. Definizio berri horrek berrikuntza teknologikoaren eta ez-teknologikoaren arteko bereizketa ezabatzen du. Berrikuntzak produktuan eta/edo prozesuan daude, berrikuntza teknologikoa den ala ez kontuan hartu gabe.

Illo horretan, Gizarte Ekonomiaren Estatistikak berrikuntzaren bi kontzeptuak bereizten ditu (berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa eta produktuaren eta prozesuaren berrikuntza); edizio honetan, 2018ko Osloko Eskuliburuan xedatutakoaren arabera, Gizarte Ekonomiaren azterketa eta konparazioa, euskal ekonomia osoari dagokionez, produktuaren eta/edo prozesuaren berrikuntzari dagokionez ezartzen da soil-soilik.

Gizarte-ekonomiak aurrera egiten du berrikuntzaren arloan, eta enpresa berritzaileen proportzio handiagoarekin kokatzen da, euskal ekonomia osoari dagokionez.

Hala, 2016-2018 aldian gizarte-ekonomian produktu- eta/edo prozesu-berrikuntzako jarduerak garatzen dituzten enpresen proportzioa %22koa da, eta tasa horrek euskal enpresa-establezimendu guztiei lotutako batez besteko berrikuntza-maila %18 ingurukoa gainditzen du.

PRODUKTU ETA/EDO PROZESUEN BERRIKUNTZA-JARDUERAK EGITEA 2018 (2016-2018 aldian berrikuntza-jarduerak egin dituzten enpresen%)



Iturria: geuk egina, Eustat oinarri hartuta. 2019ko berrikuntzari buruzko inkesta


** Produktuaren eta prozesuaren berrikuntza duten establezimenduak barne hartzen ditu*

*** Egiten ari den edo huts egin duen berrikuntza soilik egiten duten establezimenduak barne hartzen ditu*

Industriaren kasuan, gizarte-ekonomiako berrikuntza-tasa %29,3ra igozten da, hau da, kooperatiben eta/edo lan-sozietateen %30 inguruk produktua eta/edo prozesua berritzeko jardueri ekin die 2016 - 2018 biurtekoan; tasa horrek ia 7 puntu gainditzen du euskal industria osoari lotutako industria-berrikuntzaren tasa (%22,8).

Zerbitzuen sektorean, berrikuntzaren adierazle hori %23 ingurukoa da, eta EAEko zerbitzuen sektoreko batez besteko adierazlea baino 5 puntu handiagoa da (%17,5).

PRODUKTU EDO PROZESU BERRIKUNTZA-JARDUERAK JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA 2018 (2016-2018 aldian berrikuntza-jarduerak egin dituzten enpresen%)



Iturria: geuk egina, Eustat oinarri hartuta. 2019ko berrikuntzari buruzko inkesta

*Egiten ari den edo huts egin duen berrikuntza soilik egiten duten establezimenduak barne hartzen ditu

Gainera, 101 lanpostu baino gehiago dituzten enpresen berrikuntza-tasa %70era igotzen da. Mikroenpresen kasuan, establezimendu berritzaileen proportzioa %13,5ekoa izango litzateke.


PRODUKTU EDO PROZESU BERRIKUNTZA-JARDUERAK EGITEA, ENPRESA-TAMAINAREN ARABERA, 2018 (2016-2018 aldian berrikuntza-jarduerak egin dituzten enpresen%)

	GUZTIRA	5 enplegu arte	6tik 15 arte	16tik 50 arte	51tik 100 arte	101etik 200 arte	201etik 500 arte	500 baino gehiago
% GIZARTE EKONOMIAN BERRIKUNTZA	22,1	13,5	26,2	46,5	46,4	71,3	69,7	72,3

Berrikuntzak enpleguan duen eragina, esanguratsua eta mesedegarria da.

Hala, 2016 eta 2018. urteetan berrikuntza neurriak sartu dituzten kooperatiben eta lan-sozietateen %54ak, gutxi gorabehera, enpleguaren gaineko eraginen bat adierazten du.

BERRIKUNTZAREN INPAKTUA ENPLEGU OSOAN 2018 (berrikuntzak enpleguan duen eragin-motaren bat berresten duten enpresen%)



Iturria: geuk egina, Eustat oinarri hartuta. 2017ko berrikuntzari buruzko inkesta

Oinarria: 2016-2018 aldian berrikuntza egin duten enpresak

Enpleguaren gaineko eragina euskal ekonomiako establezimenduei lotutako % 50,6aren gainetik egongo litzateke.

Halaber, berrikuntzaren inpaktu horrek, bere eraginaren arabera, honako errealitate hauek kokatzen ditu:

- Enpleguan, oro har, eragin positiboa izatea (%16,2) edo, hala balegokio, neutroa izatea (%22,4).
- Berrikuntzaren eragina are hobea da enplegu kualifikatuan (%19,4)
- Enpleguan eragin negatibo txikia izatea (2016 eta 2018 artean berrikuntzaren bat sartu duten enpresen %0,5ek soilik adierazi dute).

BERRIKUNTZAK GUZTIZKO ENPLEGUAN DUEN INPAKTU-MOTA 2018
(berrikuntzak enpleguan duen inpaktua berresten duten enpresen%)

	Gizarte ekonomia
Enplegu osoa handitu da	16,2
Enplegu kualifikatuak gora egin du	19,4
Guztizko enpleguari eutsi zaio	22,4
Guztizko enplegua murriztu egin da	0,5

Oinarria: 2016-2018 aldian berrikuntza egin duten enpresak

X. GIZARTE EKONOMIAREN BESTE FORMAK 2018 (GEBF)

Fundazioen, onura publikoko elkarten, enplegu-zentro berezien, laneratzeko enpresen, arrantzaleen kofradien, eraldaketarako nekazaritza-sozietateen eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen (BGAE) kolektiboak 1.193 erakunde biltzen ditu guztira.

EAEko gizarte-ekonomiaren beste forma horiek (GEBF) urtean ordaindutako 28.251 lanpostu sortzen dituzte guztira, eta 25.200 boluntario baino gehiago mobilizatzen dituzte beren jardueraren bidez.

Hirugarren sektore sozial hori osatzen duten erakundeen tipologia eta izaera askotarikoa eta heterogeneoa da. Hala, kopuruetan, kolektibo ugariak, lehenik eta behin, fundazioekin lotzen dira - 606 erakunde -, eta, bigarrenik, onura publikoko elkarteekin - 2018. urtean inskribatutako onura publikoko 254 elkarte -. Oro har, fundazioek eta onura publikoko elkarteek GEBFak osatzen dituzten erakundeen %72 baino gehiago bilduko lukete.

Gainera, 2018an, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko 155 erakundek (BGAE), eraldaketarako 84 nekazaritza-sozietatek (ENS), 43 gizarteratze-enpresak, 37 enplegu-zentro berezik eta 14 arrantzale-kofradiak garatzen dute jardura sozioekonomikoa.

GIZARTE-EKONOMIAKO BESTE FORMA BATZUETAKO ERAKUNDEEN BANAKETA 2018
(zifra absolutuak eta% bertikalak)

	Erakundeak	
	2018	
	Z.a.	% ber.
1. Fundazioak	606	50,8
2. Enplegu zentro bereziak	37	3,1
3. Onura publikoko erakundeak	254	21,3
4. Laneratzeko enpresak	43	3,6
5. ENSak	84	7,0
6. Arrantzale-kofradiak	14	1,2
7. BGAEak	155	13,0
GUZTIRA	1.193	100,0

Enpleguari dagokionez, enpleguaren %46, hau da, urteko 13.000 lanpostu ordaindu baino gehiago, Fundazioekin lotzen dira. Modu agregatuan, fundazioen eta onura publikoko elkarten enplegu ordainduak (4.103 enplegu) dinamika oso positiboa du 2016. urtearekin alderatuta, +%10,4ko eta +%10,8ko hazkunde-tasekin, hurrenez hurren, GEBFen artean sortutako enpleguaren %61 inguru.

URTEKO ENPLEGU ORDAINDUAREN BANAKETA ETA BILAKAERA, GIZARTE-EKONOMIAREN
BESTE MODU BATZUETAKO SEGMENTUEN ARABERA ZENBATETSIA, 2016 ETA 2018
(Zifra absolutuak eta% bertikalak)

	2016		2018		Urteko enplegu ordainduaren banakera
	Z.a.	% ber.	Z.a.	% ber.	2016-2018
1. Fundazioak	11.811*	45,8	13.045	46,2	10,4
2. Enplegu zentro bereziak	9.047*	35,1	9.986	35,3	10,4
3. Onura publikoko erakundeak	3.704	14,4	4.103	14,5	10,8
4. Laneratzeko enpresak	924	3,6	719	2,5	e.d.
5. ENSak	170	0,7	233	0,8	37,1
6. Arrantzale-kofradiak	62	0,2	91	0,3	46,8
7. BGAEak	79	0,3	74	0,3	-6,3
GUZTIRA	25.797*	100,0	28.251	100,0	9,5

* 2016 datuak zuzenduta

Enplegu-zentro bereziek urteko 9.986 lanposturen pareko enplegu-maila dute, eta %10,4ko bilakaera-irakurketa positiboa izan dute. Bestalde, erregistro publikoan inskribatutako laneratzeko enpresek urtean urteko 719 lanpostu eman zituzten 2018an¹⁰.

Eraldaketa-erakunde-erakundeak eta arrantzaleen kofradiak ere goranzko enplegu-logikan daude, 233 eta 91 lanpostu urtekotuta, hurrenez hurren. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek, berriz, 74 pertsona enplegatzeko dituzte urtero.

Gainera, GEBFek boluntarioen kolektibo garrantzitsu baten gizarte-lana sustatzen dute, 25.236 pertsonakoa; kolektibo hori...

- Neurri handi batean boluntario bati lotuta dago, eta unean-unean ematen du laguntza (%73 baino zertxobait gehiago).
- Elkarrekin publikoaren ehunari (19.879 boluntario) eta fundazioei (5.322 boluntario) lotuta.
- Ordezkaritza txikia gainerako erakundearen artean; enplegu-zentro berezien kasuan, 35 boluntario baino ez.

BORONDATEZKO ENPLEGUAREN BANAKETA - pertsonen guztizkoa -, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA, GEBFetan. 2018 (zifra absolutuak eta% bertikalak)

	Borondatezko enplegua - guztizko pertsonak-	
	Z.a.	% ber.
1. Fundazioak	5.322	21,1
2. Enplegu zentro bereziak	35	0,1
3. Onura publikoko erakundeak	19.879	78,8
4. Laneratzeko enpresak	0	0
5. ENSak	0	0
6. Arrantzale-kofradiak	0	0
7. BGAEak	e.d.	e.d.
GUZTIRA	25.236	100,0

¹⁰ Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren edizio honetan, Eusko Jaurlaritzako Lanbideren Erregistroan inskribatutako laneratzeko enpresak baino ez dira sartzen.

Enpleguan izandako bilakaera positiboak ere hazkunde positiboa izan du 2016- 2018 aldi honetako fakturazio-mailetan, erakundeen tipologia guztietan; izan ere, batera hartuta, %9,5eko bilakaera positiboa izan du, eta guztira 2.244 mila milioi euroko fakturazioa gehitu du (BGAEei lotutako %46 inguru).

Joera positibo hori honela zehazten da:

- Euskadiko fundazioek (566,8 milioi euro) eta onura publikoko elkarteek (116,6 milioi euro) garatutako jardueran %28 inguruko igoera nabarmenak izan dira.
- Hazkunde handia izan da, halaber, enplegu-zentro berezien artean; izan ere, %20 handitu da haien jarduera, eta fakturazio-zifra 374,3 milioi eurora igo da.
- 2018ko ekitaldian, ENSen (74,4 milioi euro) eta arrantzaleen kofradien (64,4 milioi euro) arteko fakturazio-mailak antzekoak izan ziren.

FAKTURAZIOAREN BILAKAERA, GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE MODU BATZUETAKO SEGMENTUEN ARABERA, 2016-2018 (zifra absolutuak eta% bertikalak)


	Fakturazioa	
	Z.a	%Δ18/16
1. BGAEak	1.026.496.716	-6,5
2. Fundazioak	566.774.214	28,2
3. Enplegu zentro bereziak	374.345.154	20,1
4. Onura publikoko erakundeak	116.634.051	28,9
5. ENSak	74.426.287	45,3
6. Arrantzale kofradiak	64.416.123	72,4
7. Laneratzeko enpresak	21.773.415	e.d.
GUZTIRA	2.244.865.959	9,5*

* Laneratzeko enpresak hartu gabe

Bestalde, 431,7 milioi euro inguruko BEGd.

- 2016an sortutako BEGd ere %18 inguru gainditzen du
- %84 inguru Fundazioetan (219 milioi euro) eta enplegu-zentro berezietan (142,6 milioi euro) biltzen da.

BEGd, 2018KO GEBF ERAKUNDE MOTAREN ARABERA (zifra absolutuak)



XI. GEFK eta GEBF IRAKURKETA ERANTSIA 2018

Gizarte-ekonomiaren multzoak (GEFKak eta GEBFak) **4.937 establezimendu** hartuko lituzke 2018an, 3.337 establezimendu forma klasikoekin lotuta (kooperatibak eta lan-sozietateak) eta beste 1.623 establezimendu, gizarte-ekonomiaren beste formek osatzen duten askotariko kolektiboarekin lotuta.

Establezimenduen parke horrek, batera hartuta, **urtean 87.693 lanpostu ordaindu sortzen ditu**.

- 60.609 lanpostu kooperatiboak eta lanekoak
- Eta 28.251 enplegu gainerako erakundeei lotuta, neurri handi batean Fundazioetan (13.045) eta Enplegu Zentro Bereziatan (9.986) kontzentratuta.

Enplegu agregatuaren zifra horren arabera, gizarte-ekonomiaren sektoreak **%9,4ko pisua du EAEko biztanleria landunaren gainean**.

ORDAINDUTAKO ESTABLEZIMENDU ETA ENPLEGUEN BANAKETA GEFK ETA GEBF 2018
(zifra absolutuak eta% bertikalak)

	2018	
	Establezimendu	Enplegu
GEFK	3.337	60.609
Kooperatibak	2.590	53.390
L.S.	747	7.219
GEBF	1.623	28.251
Fundazioak	762	13.045
Enplegu zentro bereziak	106	9.986
Onura publikoko erakundeak	418	4.103
Laneratzeko Enpresak	70	719
ENSak	85	233
Arrantzale-Kofradiak	17	91
BGAEmak	165	74
GUZTIRA –bikoizketarik gabe¹¹-	4.937	87.693

Enpresa- eta gizarte-sare horrek 2018an garatu zuen jarduera

- Urteko fakturazio-maila 10.700 milioi eurokoa da (GEFKen %79 eta GEBFen %21).
- Eta BEGd globala, **3.433 milioi eurokoa; zifra hori euskal BEGd-aren %5,0 ingurukoa izango litzateke 2018an¹²**.

¹¹ Forma juridikoa duten zentro bereziei, laneratzeko enpresei eta ENSei lotutako bikoizketak, GEFKei dagozkienak: Katea Legaia S.L.L, Berjantzi Coop., Euskarri Coop., Liburki, S.L.L., Kupelan Kentucky Coop., Pormu Koop, Koopera Servicios Ambientales eta Eztikidetz S.A.T

¹² Iturria: 2018ko Kontu Ekonomikoak, BALIO ERANTSIA GORDINA (BEGD), oinarritzko prezioetan



FAKTURAZIOAREN BANAKETA ETA BEGD GEFK ETA GEBF 2018 (zifra absolutuak eta% bertikalak)

	2018	
	Fakturazioa	BEGd
GEFK	8.484.629.727	3.016.735.246
Kooperatibak	7.756.386.131	2.704.133.938
L.S.	728.243.596	312.601.308
GEBF	2.244.865.959	431.723.036
Fundazioak	566.774.214	219.152.609
Enplegu zentro bereziak	374.345.154	142.589.542
Onura publikoko erakundeak	116.634.051	45.431.820
Laneratzeko Enpresak	74.426.287	10.409.887
ENSak	64.416.123	10.045.637
Arrantzale-Kofradiak	21.773.415	4.093.542
BGAeak	1.026.496.716	e.d.
GUZTIRA –bikoizketarik gabe¹³–	10.708.507.772	3.432.673.074

Bilakaerari dagokionez, EAEko gizarte-ekonomiako enpresek eta erakundeek ibilbide positiboa izan dute 2016 eta 2018 biurtekoan.

- Fakturazio nominala eta lotutako enplegu ordainduaren maila, %10etik gertu
- Soldata-masa osoaren %9 hurbil
- Eta %4ko hazkundera emaitzetan eta %6koa BEGd-ean

GEFK eta GEBF MAKROMAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA 2016-2018
(Zifra absolutuak eta%)

Gizarte Ekonomia erantsia (GEFK +GEBF)	2016	2018	2016-2018
Establezimenduak	4.780	4.937	%3,3
Ordaindutako enplegu urtekoa	79.942	87.693	%9,7
Fakturazioa	9.773.248.851	10.708.507.772	%9,6
Soldata	2.822.403.424	3.070.284.471	%8,8
Emaitzak	549.471.999	571.500.603	%4,0
BEGd	3.237.868.265	3.432.673.074	%6,0

¹³ Forma juridikoa duten zentro bereziei, laneratzeko enpresei eta ENSei lotutako bikoizketak, GEFKei dagozkienak: Katea Legaia S.L.L, Berjantzi Coop., Euskarri Coop., Liburki, S.L.L., Kupelan Kentucky Coop., Pormu Koop, Koopera Servicios Ambientales eta Eztikidetzeta S.A.T



ERANSKIN ESTATISTIKOA

I.- GIZARTE EKONOMIAREN FORMA KLASIKOAK 2018 (GEFK)

1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN DINAMIKA 2016-2018 BIURTEKOAN (GEFK)

1.1. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA (2002-2018) KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA

	GIZARTE EKONOMIA		Biztanleria landuna EAE
	Establezimenduak	Enpleguak	
2002	3.018	61.022	902.200
2004	3.074	61.140	930.600
2006	3.138	63.480	962.100
2008	3.028	62.615	986.100
2010	3.039	59.915	937.800
2012	3.120	55.809	898.400
2014	3.169	54.582	880.600
2016	3.235	57.018	903.300
2018	3.337	60.609	935.100
Δ %18/16	%4,5	%6,3	%3,5


Oharra: Okupazio datuak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat. Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.2. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN HAZKUNDE TASAK 2000 eta 2018 artean. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA


	Establezimenduak	Enpleguak	Biztanleria landuna EAE
Δ %02/00	+%6,2	+%12,6	+%8,7
Δ %04/02	+%1,9	+%0,2	+%3,1
Δ %06/04	+%2,1	+%3,8	+%3,3
Δ %08/06	-%3,6	-%1,4	+%2,7
Δ %10/08	+%0,4	-%4,3	-%3,9
Δ %12/10	+%2,7	-%6,9	-%4,7
Δ %14/12	+%1,6	-%2,2	-%0,7
Δ %16/14	+%2,1	+%4,5	+%2,6
Δ %18/16	+%4,5	+%6,3	+%3,5

Oharra: Okupazio datuak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat. Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.1. Irudia GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2018



1.2. Irudia GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAEko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 1994-2018 (% EAEko enpleguen kopuru osoarekiko).



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat.
Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.3. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINARI BURUZKO ADIERAZLEAK. 2016-2018

	2016	2018
Establezimendu/Enpresa kopurua	1,32	1,30
Enpresen batz besteko tamaina (Enpleguak)	23,2	23,9
Establezimenduen batz besteko tamaina (Enpleguak)	17,6	18,2

1.4. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINA (zifra absolutuak eta % bertikalak) 2018

	Enpresa kopurua	% ber.	Enpleguak	% ber.	Batz besteko tamaina
5 enplegu arte	1.647	65,1	4.391	7,2	3
6tik 15 arte	480	19	4.239	7,0	9
16tik 50 arte	220	8,7	6.032	10,0	27
51tik 100 arte	95	3,8	6.761	11,2	71
101etik 200 arte	48	1,9	6.902	11,4	144
201etik 500 arte	23	0,9	7.531	12,4	327
500 enplegutik gora	18	0,7	24.751	40,8	1.375
GUZTIRA	2.531	100	60.609	100,0	23,9

1.5. Taula GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA, 2016 eta 2018 (zifra absolutuak)

	2016	2018
KOOP.	1.664	1.818
LSA	180	166
LSM	611	547
GUZTIRA	2.455	2.531

1.6. Taula ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA 2016-2018 (zifra absolutuak eta %)

	Enpleguak 2016	Enpleguak 2018	Bilakaera 2016 - 2018
5 enplegu arte	4.193	4.391	4,7
6tik 15 arte	4.499	4.239	-5,8
16tik 50 arte	5.875	6.032	2,7
51tik 100 arte	6.176	6.761	9,5
101etik 200 arte	6.466	6.902	6,7
201etik 500 arte	8.071	7.531	-6,7
500 enplegutik gora	21.737	24.751	13,9
GUZTIRA	57.018	60.609	6,3

1.7. Taula KOOPERATIBA ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA TAMAINAREN ARABERA 2016-2018 (zifra absolutuak eta %)

	Establezimenduak 2016	Establezimenduak 2018	Bilakaera 2016 - 2018
5 enplegu arte	1.080	1.225	13,4
6tik 15 arte	303	312	2,9
16tik 50 arte	172	174	1,2
51tik 100 arte	107	106	-0,9
101etik 200 arte	197	204	3,6
201etik 500 arte	137	124	-9,5
500 enplegutik gora	424	445	5,0
GUZTIRA	2.420¹⁴	2.590	7,0

1.8 Taula LAN-ESTABLEZIMENDUEN KOPURUAREN BILAKAERA, DIMENTSIOAREN ARABERA 2016-2018 (zifra absolutuak eta%)

	Establezimendu 2016	Establezimendu 2018	Bilakaera 2016 - 2018
5 enplegu arte	510	444	-12,9
6tik 15 arte	216	194	-10,2
16tik 50 arte	63	77	22,2
51tik 100 arte	8	12	50,0
101etik 200 arte	4	5	25,0
201etik 500 arte	2	2	0,0
500 enplegutik gora	12	12	0,0
GUZTIRA	815	746	-8,5

1.9. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ETA EAEko EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDU/ENPRESEN TAMAINA ENPLEGUAREN ARABERA 2018


	Establezimenduaren batez besteko tamaina	Enpresen batez besteko tamaina
Gizarte Ekonomia 2018	18,2	23,9
EAEko ekonomia 2018	5,1	5,7

Oharra: EAEri buruzko datuak Jarduera Ekonomikoen Gida zerrendatik hartutakoak dira.. Eustat 2018

¹⁴Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren 2018 edizio honetan, doikuntza bikoitza egin da kooperatiben establezimendu-kopuruaren kuantifikazioan; alde batetik, 500 enplegutik gorako enpresen artean 86 establezimendu gutxiago zenbatu dira, enpresaren egoitza nagusiko sail-unitateekin lotuta, eta horiek ez lirateke hertsiki bat etorriko enpresa- edo merkataritza-establezimenduekin; bestetik, 101-200 lanpostu dituzten akademia edo euskaltegien kasuan. Aurrez aurreko eskolak ematearekin lotutako establezimenduak zenbatu dira guztira, eta enplegu-geruza horretako enpresen artean 128 dira guztira. Oro har, 42 kooperatiba-establezimendu baino gehiagoko zuzenketa zenbatu da.

1.1.- GIZARTE EKONOMIAREN ARLOZ ARLOKO ENPLEGUA


1.3. Irudia GIZARTE EKONOMIAREN INDUSTRIAL ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA (Hazkunde-tasak 2014-2016 eta 2016-2018 biurtekoetan)



1.10. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA 2016 eta 2018 (zifra absolutuak eta % bertikalak)


	2016		2018	
	Z.a.	% ber.	Z.a.	% ber.
Lehen sektorea	186	0,3	190	0,3
Industria	25.240	44,3	26.779	44,2
Eraikuntza	1.619	2,8	1.944	3,2
Zerbitzuak	29.973	52,6	31.697	52,3
GUZTIRA	57.018	100,0	60.609	100,0

1.4. Irudia ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARAKETA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE EKONOMIAN 2018 (%bertikalak, eremu bakoitzeko enplegu osoari dagokionez)



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.5. Irudia GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN (Enpleguaren pisu erlatiboa). 2014-2018



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat Urteko okupazioaren batez bestekoa



1.11. Taula GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EGITURAREN BILAKAERA JARDUERA ADARREN ARABERA 2016 – 2018 (zifra absolutuak eta % bertikalak)

	GIZARTE EKONOMIAREN JARDUERA ADARRAK 2016		GIZARTE EKONOMIAREN JARDUERA ADARRAK 2018	
	Z.a.	% ber.	Z.a.	% ber.
Lehen sektorea	186	0,3	190	0,3
Ateratze-industriak	370	0,6	233	0,4
Manufaktura-industria	24.871	43,6	26.546	43,8
• Elikagai, edari eta tabakoaren industria	627	1,1	639	1,1
• Ehungintza eta jantzigintza	46	0,1	45	0,1
• Egurraren eta kortxoaren industria	245	0,4	263	0,4
• Paperaren industria; argitalpenak, arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak	402	0,7	500	0,8
• Oinarritzko industria	2.259	4	2.341	3,9
• Metalgintza eta produktu metalikoen fabrikazioa	9.868	17,3	9.848	16,2
• Makineria eta ekipo mekanikoak fabrikatzearen industria	8.511	14,9	8.948	14,8
• Material eta ekipo elektriko, elektriko eta optikoaren industria	2.149	3,8	3.123	5,2
• Hainbat manufaktura-industria mota	764	1,3	839	1,4
Eraikuntza	1.619	2,8	1.944	3,2
